


## Pirinioetan sumatu zuten Kantauriko itsas denboralea

Urtarrilaren bukaeran eta otsailaren hasieran izandako denboralearen indarra Pirinioetaraino iritsi zen. Hori erakusten dute Geodyn Lurpeko Laborategiko sismografoek. Canfrancen dago laborategi hori, eta, hango sismografoek

egindako neurketetan, garbi ikusten da olatuen garaiera bat datorrela uhin sismikoen anplitudearekin. Hain zuzen ere, olatu handiak izan zirenean (gorriz), anplitudea areagotu egin zen. ●



## Lurra Martetik, lehen begirada

*Curiosity* ibilgailuak gure planetaren lehen argazkia bidali du Martetik

*Curiosity* ibilgailua 2012ko abuztuan iritsi zen Martera, eta urtarrilaren 31n hartu zuen irudi hori, Eguzkia Marten jarri eta 80 minutu geroago. Irudian, Lurra agertzen da, beste edozein astro baino distiratsuago, eta, azpian, Ilargia ikus daiteke.

*Curiosity*k argazkia atera zuen unean, 160 milioi kilometroko tartea zegoen Lurraren eta Marteren artean. ●

Lurra →

Lurraren argazkia, Martetik. ARG.: NASA.